

BILBO

Hezeguneak zaintzearen aldeko protesta egingo dabe gaur Arriaga parean

Erredakzioa

Kostaldeko hezeguneak zaintzearen aldeko protesta ekitaldia egingo dabe gaur Bilbon, Arriaga antzokiaren parean, Ekologistak Martxan plataformeak deituta. Batez be, ekitaldi informatiboa izango da, jenteari azaltzeko. Eta holan, eritxi publikoa ten-tenean ipini gura dabe. Hezeguneek ingurumenean garrantzi handia daukela nabarmendu gura dabe; eta batez be, Barakaldoko Zuloako-Ibarreta hezegunea ekarriko dabe gogora. Izan be, Barakaldoko Udalak merkataritzagune bat eregi gura dau bertan. Europako Batasunean be dudak sortu jakez proiektu hori legediaren barruan ote dagoan ala ez.

Gaur Bilbon egingo daben ekitaldiak bat egingo dau Valentziako konfrentziagaz. Ramsar Itunaren ganeko 8. Topaketea da.



MARISOL RAMIREZ / ARGAZKI PRESS

AURKEZPENA. Jose Antonio Ereño Altuna 'Album de unos locos' liburuaren editorea eta sarreraren egilea; bere alboan Marian Egaña Udaleko Kultura eta Turismo Saileko zuzendaria, Bidebarrietako Liburutegian atzo egindako aurkezpenean.

Ainhoa Güemes

Bilboko Udaleko Kultura eta Turismo Sailak Baldomero de Goioagaren *Album de unos locos* liburu argitaratu dau barriz be, Udal Liburutegi Klasikoa izeneko bildumaren barruan. Paperezko bidaia Literatur Jardunaldien baitan kokatu da liburuaren aurkezpen ekitaldia.

Izan be, uriko iraganeko kultura testigantzak berreskuratzea da Bilboko Udalak sustaturiko bilduma horren helburu nagusia, agortuta dagozen argitalpenak eta inoiz argitaratu ez diren liburuak loalditik atartzea, hain zuzen.

Jose Antonio Ereño Altunarenak egin dau edizino barria, baita liburuaren sarrera be; berak azaldu euskunez atzo, Bidebarrietako liburutegian egindako aurkezpenean, «umorez eta ironiaz beterik dago, benetan liburu ederra eta liluragarria da, eta, ganera, aparteko aukera emoten deusku industrializazioaren aurreko merkataritza alorreko Bilbo galdu hartara hurbiltzeko».

Baldomero de Goioagaren *Album de unos locos* liburu le-

Bilboko gazte liberalen txangoak

BIZKAIAN. 'Album de unos locos' liburuak agerian izten dau 1870ean uriaren eta inguruko herrien arteko urrintasuna.

henengoz 1882. urtean argitaratu baebe be, orain arte galduta egon dala esan daikegu. Baldomero de Goioagak berak eta lagun talde batek, 1870tik 1872ra bitartean, Bizkaiko herrietara egindako txangoen barri emoten dau. Gazte hareek

bilbotarrak ziran, alde zaharretakoak, eta *ganekogorto* izena emoten eutsien euren buruari.

Jose Sabas Kultura eta Turismo moko zinegotziak liburuaren berbaurrea egin dau eta horretan azpimarratu dauenez, «jakin badakigu, argi eta garbi, Biz-

JOSE ANTONIO EREÑO

Liburuaren edizino barriaren egilea

«Liburuak aparteko aukera emoten deusku industrializazioaren aurreko Bilbo galdu hartara hurbiltzeko»

JOSE SABAS

Kultura eta Turismo moko zinegotzia

«Jakin badakigu, argi eta garbi, bidaia egin eben gazte haiek liberalak zirana, eta karlismoa ez ebena gogoko»

kaian zeharreko bidaia egin eben gazte hareek liberalak zirana, eta karlismoa ez ebena gogoko; abade edo nobleziadunekiko mespretxua eta mesfidantza handia erakusten eben».

Batez be, ibiltea eta gauzak bertatik bertara ikustea, «Rabelaisen narrazioetan bezala, urdaila beteta», sortzen diren txantxez eta alaitasunez gozatzeari gustaten jaken gazte lagunak ziralakoa dago Jose Sabas.

Arratia, Bilbotik urrun

«Jende zibilizauak entzun ahal dauen irainik larriena da Arratiakoa dirudiela», dio Baldomero de Goioagak *Bilbotik Arratiara* izenburuko kapitulu; eta arratiarren itxura eta ohituren ganean idazten dau jarraian, herri basatia dala azpimarratuta; «90 mende barru bardin bardin jarraituko dabe, eurentzako mundua ez da mogitzen, ez bada tabernatik urteten direnean».

Izan be, uriaren eta inguruko herrien arteko urrintasuna agerian dago Bilboko gazte liberal hareek Bizkaitik egindako txangoetan.

CB CANAL BIZKAIA

Bizkaiko Telebista

AZAROA 21 OSTEGUNA

07:40	DOCUMENTAL: "VETE ENTERÁNDOTE"
08:05	TRANSFORMERS
08:30	BIZKAIA GOIZEAN
10:00	MAGACÍN: "QUEDAMOS A LAS 7"(R)
11:00	MAGACÍN: "TAQUICARDIA" (R)
11:30	SERIE: (Cap 49) "ENTRE DOS FUEGOS"
12:00	TELENOVELA: (Cap 47) "LA INTRUSA"
13:00	ELLA JARDÍN
13:30	LA COCINA DE LOCALIA
14:00	BIZKAIA GAUR 1ª EDICIÓN
14:40	SORTE ON BIZKAIA
15:00	NOTICIAS LOCALIA
15:30	MAGACÍN: "CADA TARDE"
17:00	MAGACÍN: "TAQUICARDIA"
17:30	HECHO POR ELLA
18:00	TELENOVELA: (Cap 15) "MARIA BELÉN"
19:00	MAGACÍN: "QUEDAMOS A LAS 7"
20:00	LAS CHICAS DE ORO: "Más vieja, más sensata"
20:30	BIZKAIA GAUR 2ª EDICIÓN
21:05	NOTICIAS LOCALIA
21:30	MAGACÍN: "LO QUE QUEDA DEL DÍA"
22:45	EZBAIKA
23:35	BIZKAIA GAUR 3ª EDICIÓN
23:45	FUTBOL ARGENTINO: "Boca - Talleres"
01:40	ULTIMAS NOTICIAS LOCALIA
01:50	MAGACÍN: "LO QUE QUEDA DEL DÍA"(R)
02:45	MTV. CANAL MUSICAL